

MIARRITZE. Lapurtarrak Top 16ko sailkapenburu dira berriro, eta larunbatean, Frantziako Kopari ekingo diote

Lehen postua Montaubanen erabakiko da, azken partiduan

Miarriztarrek martxoaren 1ean jokatuko dute han, eta larunbatean, Tyrossen ariko dira

Koldo Alduntzin | MIARRITZE

Hogei eguneko etenaldia ukanen du Top 16 Liga Xapelgoak, eta Martxoaren 1ean jokatuko da azken jardunaldia. Partida guztiak batera jokatuko dira (15:10), eta oraindik postu asko geratzen dira erabakitzeko. Horien artean, lehen multzoko aurreneko postua. Miarritzek 34-27 irabazi zioenez Castresi, herenegun, berriro lehen postuan jarri da 33 punturekin. Puntu batera, berriz, Stade Français dute lapurtarrek. Bien artean erabakiko dute lehen postua eta Europako Kopa jokatuzeko txartela.

Miarritze Montaubanen ariko da, iaz bezala. Stadek, berriz,

Bourgoin bisitatuko du, eta Bourgoinek ez du oraindik ziurtaturik Top 8ra sartzeko txartela. Beraz, azken jardunaldirako geratu da taloaren banaketa. Ordura arte, ordea, Miarritzek Ligako Kopari ekingo dio, eta final-hamaseirenetako kanporaketa jokatuko du Tyrossen (Landak), igandean (15:00). Baionak ostiralean (19:30) jokatuko du, eta Paue hartuko du.

Miarritzek neurraketa ona egiteko asmoa zuen Castresen aurka, joan zen igandean, baina ez zen hala gertatu; batez ere, eguraldi haizetsu eta euritsuagatik. Lehen zatia 13-13 amaitu zuten, eta lapurtarrak 26-13 jarri baziren ere, 2. zatiko 16. mi-



GAIZKA IROZ

Milheresek entsegu bat egin zuen igandean. Argazkian, eraso batean.

nutuan, azkenean estu samar hartu zituen Castres gogotsuak. Miarriztarrek lau entsegu egin zituzten: Milheres, Brusque, Legg eta Cassinek.

Miarritzeko 9 jokalaririk ariko dira Frantziarekin Sei Nazioarteko Torneoan, larunbatean:

Betsen eta Yachvili talde nagusiarekin, Busses, Cassin, Peyrelongue eta Couzinet, A-rekin, eta Etxeberria eta Soucaze 21 urte azpikoarekin. Fitzgerald, Ingalaterra A-rekin ariko da.

Hori kontuan hartuta, zer egingo duten agertu zuen Lau-

LAURENT RODRIGUEZ

Miarritzeko entrenatzailea

«Prestakuntza fisikoa landuko dugu egunotan, bigarren fase gogorrari ekiteko»

«Montaubanen irabazi egin behar dugu, Top 8an aurkari samurrak izateko»

rent Rodriguez entrenatzaileak: «Bistan da entrenamenduetako lana hanka-motz geratuko dela, baina, batez ere, bigarren fasera eta Europako Kopara begira ariko gara. Bi eguneko atsedaldia hartuko dugu, eta prestakuntza fisikoa landuko dugu gehienbat».

Igandeko partiduan, bigarren zatian ez zutela «ongi erabili hankako jokoak» aitortu zuen Rodriguezek, eta Montaubanen aurkako partidari begira jarri zen: «Joko osatua darabil. Senda da aitzinean eta oinarritzko jokoan, saiatzen da giblean jokatzen eta kosta egiten da haiei eustea. Gainera, horrelakoetan guk ez dugu neurri osoa ematen. Dena dela, komeni zaigu puntuak batzea bigarren faserako».

Kalitatezkoa
Berdintasunean oinarritua
Integratzailea
Aurreratua
Parte-hartzailea **Eleanitza**

Horrelakoa da Euskal Eskola Publikoa.
Etorkizunari begira dagoena.



2003/2004 ikasturterako matrikulazioa:

otsailaren 3tik 14ra

www.hezkuntza.ej-gv.net

aurrera doan
herria



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION